

Euskal AEko ostalaritza-sektoreak inoizko emaitzarik onena lortu zuen 2022an, % 21,7ko igoerarekin

Enpleguak, bi urtez behera egin ondoren, % 5,5 egin du gora, sektorean 62.000 langile baino gehiago izateraino

Euskal AEko ostalaritza-sektoreak % 21,7ko hazkundera izan du 2022an jardueraren emaitzan; horrela, Euskal AEn ezagutzen den serie historikoaren emaitzarik onena lortu du, Eustatek landutako datuen arabera.

Sektore horrek ostatu-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak eta janari- eta edari-zerbitzuak eskaintzen dituztenak biltzen ditu, eta 2022an 291,4 milioi euroko irabazia lortu du, termino nominaletan, diru-sarreraren eta gastuen artean, mozkinen gaineko zerga deskontatu ondoren.

Emaitza bikaina, funtsean, negozio-zifraren portaerari zor zaio; izan ere, % 25,7ko igoerak 2021ean izandako % 33,9ko igoera sendotzen du, eta 2020an COVID-19 pandemiak gogor zigortutako sektorearen susperraldi argia erakusten du, urte horretan negozio-zifra ia erdira jaitsi baitzen, -% 47,4ra.

Negozio-zifra 4.000 milioi euro ingurukoa bada ere (3.992,5 milioi), 2019an erregistratutako 4.500 milioi euroen azpitik dago oraindik.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, jarduerataldearen arabera (mila euro). 2022

	Establezimenduak		Landun-kopurua		Negozio kopurua		Ekitaldiaren emaitza	
	Balioa	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Balioa	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Balioa	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Balioa	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021
OSTALARITZA	13.420	0,1	62.406	5,5	3.992.463	25,7	291.355	21,7
Ostatu-zerbitzuak	1.405	2,3	6.629	6,6	643.032	52,6	54.184	87,6
Hotelak eta antzeko ostatuak	646	1,6	4.908	6,1	507.572	56,6	41.670	288,0
Beste ostatuak	759	3,0	1.721	8,1	135.460	39,4	12.514	-31,0
Janari eta edarien zerbitzuak	12.015	-0,2	55.777	5,4	3.349.431	21,6	237.171	12,6
Jatebakeak eta janari postuak	4.284	5,1	26.405	6,6	1.824.009	26,3	95.560	23,0
Beste jan-zerbitzuak	284	8,0	10.694	16,0	376.347	9,8	7.362	36,8
Edaritegiak	7.447	-3,2	18.678	-1,3	1.149.075	18,8	134.243	5,3

Data 2024ko Maiatzaren 15a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta


Euskal ostalaritzaren jarduerak 2022an izan duen bilakaera onaren isla da **enpleguaren hazkundera, % 5,5**, 3.262 pertsona gehiago, 62.406 lanpostura iritsi arte, 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren, % 5,6ko eta % 2,3ko murrizketak izan ondoren. Igoera horren ondoren, 2022an enpleguaren bigarren erregistrorik onena lortu zen, 2019an 64 mila pertsona enplegaturen errekorra lortu ondoren. Eta hori, establezimendu kopurua egonkor mantenduz, 13.420 guztira, % 0,1eko igoera txikiarekin.

Gastuei dagokienez, bai hornikuntzek bai langile-gastuek igoera handiak izan dituzte, % 23,1 lehenengoek eta % 22,1 bigarrenek, baina negozio-zifrarekin gertatzen den bezala, balio absolutuetan pandemia aurreko zifren azpitik.

Era berean, garrantzitsua da faktore-kostuaren arabera balio erantsi gordinaren bilakaera – sortutako aberastasuna adierazten du, eta diru-laguntzen eta zeharkako zergen doikuntzaren ondoren bitarteko kontsumoak kenduta egiten den ekoizpen gordinaren baliokidea da – % 21,2 da, 1.721 milioira iritsiz.

≡ Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko negozio-zifraren banaketa, jarduera-taldean arabera. 2022

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Dibisioen arabera analisi


Ostalaritzaren barruan, *Janarien eta edarien* dibisioa da nagusi: *Jatetxeak*, *Beste janari-zerbitzu batzuk* eta *Edari-establezimenduak* azpisektoreak. Horrek establezimenduen % 89,5 hartzen du, % 89,4ko enplegu-zifra dauka, eta fakturazioaren % 83,9.

3.349 milioi euroko negozio-zifra izan zuen, hau da, aurreko urtean baino % 21,6 gehiago. Era berean, enpleguak % 5,4 egin du gora, eta 2.853 enplegu irabazi ditu; guztira, 55.777 pertsona daude lanean dibisio horretan. Establezimendu kopurua, 12.105, ia berdin mantendu da – 22 establezimendu gutxiago –.

Janarien eta edarien dibisioa emaitza nabarmen positiboarekin eman dio amaiera 2022ari: dibisioaren maximoa lortu da, 237 milioi euro, eta 26,6 milioitan hobetu dira aurreko urtekoak (% 12,6).

Emaitzak jarduera-maila desberdinagoan aztertuz gero, *Jatetxeen* azpisektoreak, enpleguan eta negozio-bolumenean garrantzi handiena duenak, % 26,3ko aldakuntza positiboa izan du fakturazioan, enplegua (% 6,6) eta establezimenduen kopurua (% 5,1) handituz.

≡ Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko langile okupatuen banaketa, jarduera-taldean arabera. 2022



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Bestalde, *Edarien establezimenduen* azpisektorearen fakturazioa % 18,8 hazi da, baina murriztu egin dira enplegatutako pertsonen kopurua (-%1,3) eta establezimenduen kopurua (-%3,2).

Beste janari-zerbitzu batzuen azpisektoreak, catering-ak, besteak beste, % 9,8 igo du bere negozio-zifra. Enplegatutako pertsonak ere % 16 gehitu dira, eta establezimenduen kopurua % 8.

Ostatu-zerbitzuak, Hotelen eta beste ostatu batzuen azpisektoreek osatuak, *Ostalaritzaren* zati txikiagoa dira, enpleguaren % 10,6 eta establezimenduen % 10,5 hartzen baitute. Hala ere, adierazle horiei dagokienez, negozio-zifra nahiko handiagoa da, % 16,1. Negozio-zifrak % 52,6 egin du gora (643 milioi euro), enpleguak (6.629 pertsona) % 6,6 egin du gora, eta establezimenduen bolumenak (1.405) % 2,3.

Sektore honetako adierazgarriena *Hotelak* azpisektorea da. Horren negozio-zifra % 56,6 hazi da, eta horrela *Ostatu-zerbitzuen* negozioaren ia % 80 kontzentratzen du.

Hain hazkunde berezia pandemiaren urteetan izandako beherakaden ondorioa da. Susperraldi horrek ekarri du 2022ko jardueraren emaitzaren gorakada ikusgarria (% 288), balio erantsi gordinarena (% 44,5), eta ez txikiagoa enpleguan (% 6,1) eta establezimendu-kopuruan (% 1,6).

Azkenik, *Beste ostatu batzuk* azpisektoreak urtea oso positiboki amaitu du: *Ostatu-zerbitzu*etako establezimenduen % 54ren jabe da, nahiz eta enplegatuen % 26 soilik okupatzen duen. Pandemiak gutxiago zigortuta, enplegua % 8,1 igo da, establezimenduak % 3, negozio-zifra % 39,4 eta balio erantsia % 30,1. Hala ere, emaitzak % 31 egin du atzera.

Lurralde-azterketa

Lurraldeen bilakaera aztertzean, adierazle guztien joera orokor positiboaren barruan, aldaketak ikusten dira lurralde bakoitzari eragiten dioten intentsitatean.

Ildo horretan, jardueraren emaitzaren kasuan, Bizkaian % 27 igo da, Gipuzkoan % 20,4 eta Araban % 6,5.

Era berean, negozio-zifrak gora egin du hiru lurraldeetan, baina erritmo txikiagoan Araban (% 22,4), Bizkaian (% 25,3) eta Gipuzkoan (% 27,5) baino.

Enpleguari dagokionez, Araba beste bi lurraldeen batez bestekoen artean dago. Gipuzkoan, *Ostalaritzako* enplegua nabarmen hazi da (% 8,4) azken urtean; Araban, % 6 inguru (% 5,9); eta Bizkaian, % 3,3 baino ez.

Azkenik, establezimenduen kopuruak ez du ia aldaketarik izan erkidego osoan (% 0,1), baina nabarmentzekoa da lurraldeak horretan heterogeneoak direla; izan ere, Araban % 0,7 hazi da eta Gipuzkoan % 0,5; Bizkaian, berriz, % 0,4 jaitsi da.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila euro). 2022

	Euskal AE	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Araba/Álava	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Bizkaia	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021	Gipuzkoa	Urteko aldakuntza (%) 2022-2021
Establezimenduak NU	13.420	0,1	1.943	0,7	7.032	-0,4	4.445	0,5
Landunkopurua NU	62.406	5,5	8.921	5,9	30.567	3,3	22.918	8,4
Negozio kopurua	3.992.463	25,7	524.862	22,4	1.918.256	25,3	1.549.345	27,5
Ekitaldiaren emaitza	291.355	21,7	29.338	6,5	131.162	27,0	130.855	20,4

Data 2024ko Maiatzaren 15a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62